

ALDAPAN GORA TXITXARRORAINO



Moises, gorriz, beste txirrindulari ezagun batzuekin.

Ondo begiratuz gero, Marino Lejarretaren antza har dakioke, baina ziuraski bizikletan ibiltzeko zaletasuna besterik ez dute amankomunean. Bera Moises Uriarte da, Txitxarrora egiten den igoera zikloturistaren irabazlea. Laisterketa hau ez da Tourra edo Giroa bezain ospetsua, baina Bizkaia eta Gipuzkoako zikloturista onenek hartzen dute parte.

Aurtengoa, Moises nagusitzen den bigarren aldia da. Horretarako, uda partean bizikletan igo eta jo ta ke aritzen da kilometroak egiten. Gero "udan hartutako formia" man-

tentzen ahalegintzen da.

Txitxarrorako igoera zikloturistak bere alde bitxi eta berezia dauka. Alde batetik, laisterketa bukatu ondoren, bertara hurbiltzen diren hainbat txirrindulari profesionalak "Erlojuz kontrakoa" egiten dute aldapan behera. Bestetik, gaueko parranda, eta gehienek harrapatzen duten "tajadia". Giroa berotuta da-
goenean, goizeko lauretan, sari banaketa. Aurten kopa Ermura etorri da. Irabazleak, Moises Uriartek, datorren urtean ere parte hartzeko prest dago...


AINHOA DELGADO



ARTARRAI OPARI DENDA

Goienkale, 5 ¤ telf. 17 44 19
ERMUA

IZARRA Garraioak



Valdespinako Markesa, 5 - 1.a
☎ 943- 17 01 01 • ERMUA

arral s.l. esklusibak

Luis Cañas
La Española azeituna
La Verja zumo eta
Iturri kontserben
BANATZAILEA

Goitondo Goikoa polygonoa
B-3 Pabiloia
Telefonoa: 17 60 75
Mallabia

OPTICA



J. CASADO

Lenteak
Audifonoak
Graduatutako Antijuak
Eguzkirako Antijuak

Kantabria, 2
Tfnoa. 17 33 57

ERMUA